- Suteen programazio zentrala eguneratzea (sirenaren denbora eta lokaletako atzemate puntuen zerrenda).

#### Letren Fakultatea.

- Hobetzea DBPekin lan egiteko baldintzak, pertsona bereziki sentibera baten postuan.

#### Enpresa Ikasketen UE.

- Sua ebakitzeko bi ate konpontzea.

#### Irakasleen UE.

- 1 pultsadore eta suteak atzemateko 8 puntu instalatzea.

Gainera, zenbait ikastegitan eguneratu egin da ATEXaren aurreko babesa; zehazki, gas naturalaren presentzia atzemateko sistemak instalatu dira.

### **5.- Enpresa jardueren koordinazioa.**

Campusean enpresa jarduerak koordinatzeko prozedura aplikatzeko, Campuseko kontraten PAZekin koordinazioa.

## **6.- Larrialdi planak.**

### **6.1.- Larrialdi planei buruzko txostenak eguneratzea.**

2014an egindako autobabeserako planak eguneratzea:

- Ingeniaritzako UE.
- Gizarte Langintza.
- Enpresa Ikasketak
- Letren Fakultatea.
- Medikuntzako irakasgunea.
- Irakasle Eskola.
- Unibertsitate Pabiloia.

2014ko urtarrilaren 25ean Farmazia Fakultatean egindako enplegu azokaren inguruko autobabeserako dokumentua eta azalpen triptikoa egin eta ezarri da.

Elurreta ikasgelategiko Master Egunaren inguruko autobabeserako dokumentua eta azalpen triptikoa egin eta ezarri da.

Gizarte eta Giza Zientzien ikerguneko autobabeserako plana berrikusi da.

Erregistratu eta, kasuan-kasuan, homologatu egin dira Campuseko autobabeserako planak, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak horretarako prestatutako aplikazioan.

### **6.2.- Ezarpena: larrialdietako planetatik / autobabeserako eskuliburuetatik ateratako simulazioak.**

2014an egindako simulazioen taula eta aurreikuspena erantsi dira.

## 2014ko MEMORIA

<b>IKASTEGIA/ CENTRO</b>	<b>SIMULAZIOA EGITEKO DATA, URTEKO PLANAREN ARABERA / FECHA PREVISTA SIMULACRO SEGÚN PLAN ANUAL</b>	<b>LARRIALDI PLANEN EGUNERAKETA / ACTUALIZACIÓN DE LOS PLANES DE EMERGENCIA</b>
<b>MIU/UDM</b>	2014ko abendua Diciembre 2014	2017ko azaroa
<b>IUE/EUI</b>	2015ko martxoa Marzo 2015	2017ko ekaina
<b>IKASGELATEGIA AULARIO</b>	2014ko azaroaren 14a 14 Noviembre 2014	2015eko abendua
<b>PABILOIA PABELLON</b>	2014ko maiatzaren 15a 15 Mayo 2014	2017ko maiatza
<b>GIZARTE LANGINTZA TRABAJO SOCIAL</b>	2015eko martxoa Marzo 2015	2017ko irail-urria
<b>ERREKTOREORDETZA VICERRECTORADO</b>	2014ko maiatzaren 15a 15 mayo 2014	2014ko abendua
<b>FARMAZIA FARMACIA</b>	2014ko apirilaren 15a 15 Abril 2014	2015eko abendua
<b>LETREN FAKULTATEA 1 F.LETRAS 1</b>	2015eko martxoa Marzo 2015	2017ko azaroa
<b>LETREN FAKULTATEA 2 F. LETRAS 2</b>	2015eko martxoa Marzo 2015	2015eko azaroa
<b>JFKZF FCAFD</b>	2014ko uztailaren 7a 7 Julio 2014	2015eko azaroa
<b>ENPRESA IKASKETAK EMPRESARIALES</b>	2014ko apirilaren 4a 4 Abril 2014	2017ko urria
<b>IRAKASLEEN ESKOLA MAGISTERIO</b>	2015eko martxoa Marzo 2015	2017ko abendua
<b>LASCARAY IKERGUNEA CENTRO DE INVESTIGACIÓN LASCARAY</b>	2014ko uztailaren 2a 2 Julio 2014	2015eko urria



## **7.- Prestakuntza.**

Laborategiko arriskuei buruzko ikastaroa 3 campusetan emango da (Gipuzkoako Campusean bi saio eskaintzen dira).

Arabako Campuseko prebentzio teknikariak eta Gipuzkoako Campuseko EUDk laneko arriskuen prebentziari buruz emandako online ikastaroaren kontrola eta segimendua egin dute.

Ikasgelategiko DPZko suteetarako instalazio automatikoaren erabilerari buruzko prestakuntza teoriko-praktikoa eman da.

Parte hartu da laborategi eta tailerretako segurtasunari buruzko prestakuntzaren/informazioaren inguruko zirriborro bat egiteko lanetan.

## **8.- Aldizkako kontrolak. Segurtasun ikuskapenak.**

Arkitektura eta Obren Zerbitzuak ikuskapen hauek behar dituzten elementuentzat zehaztutakoak, Prebentzio Zerbitzuari eta/edo Arlo Teknikoko ikuskapenen zerbitzuari egindako eraikinetako mantentze lanak egiteko eta arriskuak kontrolatzeko eskaeren arabera. Ildo horretatik, noizean behin aztertzen dira seinaleak, lurrak, ebakuazio bideen egoera, etab.

## **9.- Arauzko ikuskapenak.**

Industria arautegiaren mende dauden Campuseko elementuak ikuskatu ditugu; ikuskapenak ALZk kudeatu ditu.

## **10.- Kontrol higienikoak.**

- Ingurumen baldintzak neurtu dira Ingeniaritzako UEko sarrera nagusiko hallean.

## **11.- Istripuen eta gorabeheren azterketa.**

Ikusi Osasun Arloko datuak. Istripuak eta gorabeherak aztertu ditugu, eta prebentzio eta zuzenketa neurriak proposatu eta martxan jarri ditugu, bai teknikoak/informatzaileak, bai antolamenduari dagozkionak.

## **12. 12.- Beste jarduera batzuk.**

- Arabako Campuseko Arlo Teknikoaren Prebentzio Zerbitzuaren jarduera memoria egin da.
- UPV/EHUren Harrera Eskuliburua eguneratu da. Aldaketa proposamena.
- Bete egiten dira IUEko sarreretan derrigortasun panelak edo joan-etorri libreko lehentasunari buruzkoak instalatzeko irizpideak.
- Lescaray Ikerguneko autogakoak eta CBSak erabiltzeko prozedurak egiteko lanetan parte hartu da.
- Bete egiten dira ikasgelategiko karga igogailua erabiltzeko irizpideak (kargetarako eta materialetarako besterik ez).
- Parte hartu da Eusko Jaurlaritzako Industria Sailean aurkeztu beharreko dokumentazioa berrikusteko lanetan, 3. kategoriako instalazio erradiaktibo berri bat baimentzeko, Lescaray Ikergunean.

## **GIPUZKOAKO CAMPUSA.**

### **1.- Antolamendu paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkurak.**

Aktiboki parte hartu dugu 2014an Gipuzkoako Campusean egin diren Batzordearen bilkuretan.

Hona hemen bilkura horien datak:

martxoaren 25a.

ekainaren 3a.

irailaren 30a.

### **2.- Prebentzio jardueren plangintza.**

Campuseko Batzordearen bilkura bakoitzean, hiruhileko horretan prebentzioaren kudeaketari dagokionez gauzatutako ekintzak landu ditugu.

### **3.- Arriskuen ebaluazioa.**

Autobabeserako planak eguneratzeko lanen artean, eraikinen arriskuak aztertu dira.

2014ko txostena, Gipuzkoako Campuseko eraikinetako zabaltzei eta altuerako lanei buruzkoa.

### **4.- Prebentzio neurriak gauzatzea.**

Campuseko eraikinetako zabaltzen arriskuei buruzko txostenaren ondorioz, zenbait neurri zuzentzaile eskatu dira; esate baterako, Medikuntza-Erizaintza Eskolako eta FIHEZiko zabaltzetako segurtasun soken ingurukoak.

### **5.- Enpresa jardueren koordinazioa.**

Lankidetzeta, MFZn simulakroa egiteko.

### **6.- Larrialdietarako planak.**

#### **6.1.- Larrialdietarako planen txostenak eguneratzea.**

Autobabeserako planak osorik egitea barneratu eta prebentzioko teknikariaren zeregina esleitu ondoren, azaroaren 10ean igorri zitzaizkien interesdunei honako ikastegi hauetako memorien zirriborroak:

- Errektoreordetza
- Pabiloia
- Carlos Santamaria
- Joxe Mari Korta Ikergunea
- Eibarko IITUE.
- Medikuntza-Erizaintza Eskola
- Informatika Fakultatea

Azaroaren 19an, Arkitektura Zerbitzuak interesdunei igorri zizkien aipatutako ikastegietako planoen zirriborroak.

2015aren hasieran zuzenduko eta amaituko dira plan horiek. Gipuzkoako Campusean eguneratu behar dira.

### **6.2.- Ezarpena: larrialdietako planetatik / autobabeserako eskuliburuetatik ateratako prestakuntza eta simulazioak.**

Zenbait bilkura egin dira simulazioen aurretik eta ondoren.

Autobabeserako planei, ezarpenari eta simulakroei buruzko ikastaroa eman da azaroan.

### **6.3.- ATEX azterketa.**

Kimika Fakultateak ATEX dokumentua ezarri behar du.

### **6.4.- Simulazioak.**

Honako simulazio hauek egin dira, ebakuazio eta guzti:

Eskola Politeknikoa: apirilaren 14a, irailaren 24a eta urriaren 9a.

Jose Mari Korta I+G+Bko eraikina: ekainaren 18a.

Enpresa Ikasketen Eskola: azaroaren 6a.

Erizaintza-Medikuntzako Eskola: azaroaren 17a.

Kimika Fakultatea: azaroaren 27a.

Halaber, ebakuaziorik gabeko zenbait simulazio egin dira, segurtasun sistema batzuen funtzionamendua neurtzeko (hala nola alarmena).

### **6.5.- Autobabeserako planen erregistroa.**

Gipuzkoako Campusean homologatu beharreko 9 ikastetxeak homologatzeko dokumentazioa igorri da.

- Arkitektura Eskola
- Carlos Santamaria Zentroa
- Barriola ikasgelategia/ikastegia
- Kimika Fakultatea
- Enpresa Ikasketen Eskola
- Zuzenbide Fakultatea
- FIHEZI Fakultatea eta Psikologia Fakultatea
- Eskola Politeknikoa
- Eibarko IITUE

Egiaztatu digute guztiak homologatu direla, lehenengo biak izan ezik; horiei buruzko argibideen zain gaude.

Campuseko eraikinetako plan guztiak erregistratu dira, homologatu gabe daudenetakoak izan ezik, jakina.

## **7.- Prestakuntza.**

Autobabeserako Planari (zehaztapena eta simulazioa) buruzko ikastaroa, Carlos Santamaría eraikinean emana: zenbait ikastegitako langileak bertaratu dira.

Arrisku elektrikoari eta mekanikoari buruzko ikastaroa. Lau campusetan eman da, honako egun hauetan:

Apirilaren 4a: Bilbo

Maiatzaren 9a: Leioa

Maiatzaren 16a: Donostia-San Sebastián

Maiatzaren 23a: Vitoria-Gasteiz

Kanpoko enpresa batek altueratan lan egiteko segurtasunari buruzko ikastaroa eman du urte amaieran.

## **8.- Aldizkako kontrolak. Segurtasun ikuskapenak.**

Autobabeserako planen memoria eguneratuak egiteko, aztertu egin dira eraikinen segurtasunarekin eta instalazioekin lotutako gaiak.

## **9.- Arauzko ikuskapenak.**

Industria arautegiaren mende dauden Campuseko elementuen elementuak ikuskatu ditugu; ikuskapenak ALZk kudeatu ditu.

## **10.- Kontrol higienikoak.**

Erizaintza Eskolako teilatuko elementu lurrunkorren kontzentrazioa neurtzeko zain gaude.

Neurketa termohigrometrikokoak Eskola Politeknikoko sotoan.

Zaratak neurtzeko lanak Carlos Santamaria eraikinean.

Ingurumenaren, eremu elektromagnetikoen eta karga elektrostatikoaren neurketak egin dira Korta eraikinean eta Eskola Politeknikoan, lipoatrofia erdizirkularra duten pertsonen inguruan. Neurketa horiek egiteko zenbait hipotesi erabili dira, arazoa murrizteko hartutako neurriak zenbatzeko.

## **11.- Istripuen eta gorabeheren azterketa.**

Prebentzio eta zuzenketa neurriak proposatu eta martxan jarri ditugu, bai teknikoak, bai prestakuntzari/informazioari dagozkionak, bai antolamenduari dagozkionak.

## **12.- Beste jarduera batzuk.**

A.- Neurri prebentiboak/zuzentzaileak barne hartzen dituzten txostenak.

Carlos Santamaria eraikina

Maila berebean jaustea. Ikastegiko sarrera.

Istripua: kolpea gurdiaekin bibliotekan. Joan-etorria eta ebakuazioa errazteko eta istripua ez errepikatzeko bestelako neurriak proposatzea.

Errektoreordetza

Haurdunaldia.

Kimika Fakultatea

Haurdunaldia.

Istripua, armairu bat mugitzean indar gehiegi egiteagatik.

Laborategiko teknikari baten bulegoa aldatzeko eskaera.

Aurpegia narriatzea, hozkailu barruko substantziak garbitu ondoren.

Eskola Politeknikoa, UEP.

2013an txostena egin ondoren, txostenean adierazitako seinaleak igortzea.

Sute saioa, gauez, sotoan. Suhiltzaileek esku hartu zuten.

Usain sarkorra hedatu zen laborategi batetik eraikin osora.

Haurdunaldia.

FIHEZI Fakultatea

Maila berberean jaustea. Ikastegiko sarrera.

Lehortasun arazoak Idazkaritzan.

Irakasleen Eskola

Ur bero sanitarioa aztertzeke gomendioa.

Zuzenbide Fakultatea

Maila berberean jaustea. Ikastegiko sarrera.

Barriola Ikasgelategia

Unibertsitateko Orientaziorako Azokan (UOA) bertaratutakoei banatzeko triptikoa.

Autobabeserako ekipoetarako argibide zehatzak UOAn.

Ikusmen alarmaren inguruko proposamena, akustikaren batera, honako eremu hauetan: komunak, biltegia eta hirugarren solairua.

Sindikatu bulegoaren txostena. Bolumena eta azalera kalkulatzeko.

Arkitektura Eskola

Arriskuen analisia eta argibide zehatzak, Eskolako auditoriumean hitzaldi bat emateko.

Kolpea sarrerako kristalezko atearekin (ez zegoen seinalezaturik).

Arkitektura Eskolak hala eskatuta, Autobabeserako Planaren planoak pdf formatuan egitea, barneko praktikak egiteko.

Istripua: maketak apurtzea.

B.- Beste zenbait jarduera

Berritu egin da substantzia katalogatuak erosteko eduki beharreko jarduera lizentzia.

Interesdunei igorri zaizkie Katalogatutako eta Katalogatu gabeko Substantzia Kimikoak darabiltzaten operadoreen aitorpenerako urteko galdetegiak. Halaber, Barne Ministeriora igorri dira. Jarduera esparrua: unibertsitatea.

Substantzia katalogatuen erabilera kontrolatzeko organoaren argibide eskaera bati erantzun zaio.

Ikastegi bakoitzean batzeko lekuetan mugarri bana jartzeko proposamena.

Makineria eta lan ekipoak legeztatzeke plegua berrikustea.

Urteko mediku azterketaren ondoren, lipoatrofia erdizirkularreko hogeita hamar bat kasu atzeman eta egiaztatu dira. Bisitak egin, bulegoaren egoera egiaztatu eta neurri zuzentzaileak proposatu dira.

Eremu sanitarioa berrikusi ondoren, ikertzaileei aholkularitza eskaerak egin zaizkie.

Larrialdietan kanpoko zerbitzuekin koordinatzeko proposamena, orduz kanpoko lanerako.

## **BIZKAIKO CAMPUSA.**

### **1.- Antolamendu paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkurak.**

2014an Bizkaiko Campusean egin diren Batzordearen bilkuretan parte hartu dugu. Zehazki, bi bilkura egin dira, data hauekin:

martxoaren 11n

irailaren 29an

### **2.- Prebentzio jardueren plangintza.**

Gerentziak Prebentzio Jardueraren plangintza egin du, eta 2014rako lehenetsi egin ditu Eusko Jaurlaritzaren aurrean autobabeserako planak eguneratzea eta izapidetzea. Izapide lan horretan dagozkion planak erregistratu eta homologatu dira.

Bizkaiko Campuseko zenbait eraikini buruzko txostenak egin dira: arriskuak identifikatu eta dagozkion prebentzio neurriak proposatu dira.

### **3.- Arriskuen ebaluazioa.**

Zenbait multimedia teknikariren postuen arriskuak ebaluatu dira, baita horiek altueratan egindako lanekin duten lotura ere.

Haurdunaldia jakinarazi ondoren, 6 lanpostu ebaluatu dira. Honako hau da ikastegien araberako banaketa:

4 postu Zientzia eta Teknologia Fakultatean

1 Medikuntza eta Odontologia Fakultatean

1 Bilboko Irakasleen UEn

Eskaerak ohiko bideetatik (e-maila, telefonoa) egiteko aukeraz gain, 2014ko apirilean [informes.prevencion@ehu.es](mailto:informes.prevencion@ehu.es) sortu da, eta apirilaz geroztik, 2014. urte osoan, guztira 70 eskaera jaso dira.

Arrisku biologikoko 12 ikertalde berri identifikatu dira, jakinarazpen egokien bidez. Horietatik 8 Bizkaiko Campusekoak dira, eta honako banaketa hau dute:

1 Erizaintzako Unibertsitate Eskolan

3 Medikuntza eta Odontologia Fakultatean

4 Zientzia eta Teknologia Fakultatean

Gainera, ZTFko arrisku biologikoko beste bi laborategi ebaluatu dira, Biokimika Sailean eta Zoologia Sailean.

PIEren (Plentziako Itsas Estazioa) ebaluazioa egin da.

IITUEren ebaluazioa egin da.

Argitalpen zerbitzuaren ebaluazioa egin da.

### **4.- Prebentzio neurriak gauzatzea.**

Txostenetan proposatutako zenbait prebentzio neurri gauzatu dira.

## 5.- Enpresa jardueren koordinazioa.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen enpresa jardueren koordinazioari buruzko 171/2004 EDak langileen segurtasunaren eta osasunaren gorenko babes maila lortzeko bete beharreko gutxieneko arauak zehazten ditu, eta bete beharreko helburu hauek ezartzen ditu:

- a. Lantokian bat egiten duten enpresa desberdinek Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 15. artikuluan ezarritako prebentzio ekintzen printzipioak modu koherentean eta arduratsuan aplikatzea.
- b. Lantokian bat egiten duten enpresek laneko metodoak behar bezala aplikatzea.
- c. Lantokian gauzatzen diren jarduera desberdinen elkarrekintzak kontrolatzea, bereziki, larritzat edo oso larritzat jotzen diren arriskuak sorraraz ditzaketenean edo lantokian beren artean bateraezinak diren jarduerak gauzatzen direnean (langileen segurtasunean eta osasunean izan dezaketen eraginagatik).
- d. Lantokian bat egiten duten enpresetako langileei eragin diezaieketen arriskuak prebenitzeko aplikatutako neurriak egokitzea.

Horretarako, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak helburu horiek betetzea bermatuko duen prozedura bat gauzatu du, kanpoko erakunde publiko nahiz pribatu batek UPV/EHUren instalazioetan lan egiten duenerako. Horrez gain, UPV/EHUko langileek Unibertsitatetik kanpoko lantokietan gauzatzen dituzten jarduerari ere aplika dakieke.

2014an, aurreko urteetan bezala, nabarmen areagotu dira prebentzio arloan egindako jardueren koordinazioa. Hiru campusetan koordinatu dira enpresa jarduerak. Bada, enpresa horiek honela multzoka daitezke:

- Garbiketa
- Alokaturako lokaletako zerbitzuak
- Estatistikak egiteko aholkularitza
- Mantentze lan informatikoak
- Instalazioen mantentze lanak: elektrikoak, berokuntza, multzo elektrogenoak...
- Segurtasuna
- Hainbat hornikuntza: papera, makina automatikoak
- Ikuskizunak
- Ostalaritza
- Erreprografia
- Eta abar.

## 6.- Autobabeserako planak.

### 6.1.- Autobabeserako planen txostenak eguneratzea.

Aurten, Prebentzio Zerbitzuko Arlo Teknikoa autobabeserako plan hauek eguneratzen hasi da.



<b>Bizkaiko Campusa</b>	<b>Autobabeserako eskuliburuak</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Galdara gela</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errektoregoa</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biblioteka Nagusia</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Areto Nagusia</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizkaia Aretoa</li> </ul>

### **Autobabeserako planak izapidetzea Eusko Jaurlaritzan Homologazioak**

Nahitaezkoa da 2.000 bizilagunetik eta/edo 28 metroko altueratik gorako eraikinetan.

<b>ERAIKINA</b>	<b>HOMOLOGAZIO DATA</b>
<b>INGENIARITZA GET</b>	<b>2014/12/11</b>
<b>IITUE</b>	<b>2014/11/07</b>
<b>IRAKASLE ESKOLA</b>	<b>2014/11/07</b>
<b>EKONOMIA FAKULTATEA</b> <b>ZIENTZIEN</b>	<b>2014/11/07</b>
<b>UNAMUNO EGOITZA</b>	<b>2014/11/07</b>
<b>GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA</b>	<b>2014/11/07</b>

Homologatzeko daude Zientzia eta Teknologia Fakultatea, eta Biblioteka eraikina.

Ondoren zehazten dira Eusko Jaurlaritzan 2014ko abenduaren 15a baino lehen erregistratutako eta baliozkotutako autobabeserako planak.

**IKASTEGIA**

Leioako aparkalekua  
 Medikuntzako irakasgunea  
 Bilboko Ingeniaritza GET  
 Nautika eta Itsasontzi Makineria GET  
 Bilboko Enpresa Ikasketen UE  
 Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskola  
 Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoa  
 Meatzeen eta Lan Publikoen Ingeniaritza  
 Teknikoko UE  
 Bilboko Irakasleen UE  
 Lan Harremanen UE eta Zuzenbidea, I. eta II.  
 ikasgelategiak  
 Arte Ederren Fakultatea  
 Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
 Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea  
 Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea  
 Medikuntza eta Odontologia Fakultatea  
 Bizkaiko Esperientzia Gelak  
 Unamuno Ikastetxe Nagusia  
 Sarrikoko Txaletak  
 Errektoregoa  
 Biofisika  
 Biblioteka  
 Galdara gela  
 Areto Nagusia  
 Bizkaia Aretoa

## 6.2.- Ezarpena: larrialdietako planetatik / autobabeserako eskuliburuetatik ateratako prestakuntza eta simulazioak.

IKASTEGIA	SIMULAZIOAREN DATA
Unamuno Ikastetxe Nagusia	Api. 7
Lan Harremanen UE eta Zuzenbidea, I. eta II. ikasgelategiak	Api. 7
Bizkaia Aretoa	Api. 9
Bilboko Enpresa Ikasketen UE	Api. 19
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Urr. 22
Bilboko Irakasleen UE	Urr. 30
Bilboko Ingeniaritza GET	Aza. 26
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoa	Abe 11.
Meatzeen eta Lan Publikoen Ingeniaritza Teknikoko UE	Abe. 11

## 7.- Prestakuntza.

Laborategiko segurtasunari, Arrisku biologikoari eta arrisku mekanikoari eta elektrikoari buruzko ikastaroak eman dira.

## **8.- Aldizkako kontrolak. Segurtasun ikuskapenak.**

### **8.1. Aldizkako kontrolak.**

Bi aldiz aztertu ditugu suteen aurkako babes sistemetako elementuak eta Campuseko ikastegi guztietako seinaleak. Horrez gain, larrialdietarako plan berriek zehazten dituzten ebakuazio bideak aztertu eta egokitu ditugu.

### **8.2. Segurtasun ikuskapenak.**

Bizkaiko Campuseko arriskuen ebaluazio dokumentuan bildutako hainbat ikuskapen egin ditugu.

Atal honetan Plentziako Itsas Estazioko (PIE) eta IITUEko arrisku ebaluazioa azpimarratu behar dira. SEHTRA aplikazio informatikoan lan lekuen ebakuaziora gehitu da.

## **9.- Arauzko ikuskapenak.**

Industria arautegiaren mende dauden Campuseko elementuak ikuskatu ditugu; ALZk kudeatu ditu.

## **10.- Higiene neurketak.**

### **Kutsatzaile kimikoen aurreko esposizioaren kontrola.**

2014. urtean, Bizkaiko Campuseko ikastegietan ez da kutsatzaile kimikoen neurketarik egin.

### **Agente fisikoen aurreko esposizioaren kontrola.**

Zarata neurketak egin dira zenbait lan lekutan; besteak beste:

Odontologia Klinika

Farmakologiako Bulegoa

II. ikasgelategia. Negoziatua

IITUE

Argiteria neurketak egin dira hainbat lekutan, baita neurketa termohigrometrikokoak ere.

## **11.- Istripuen eta gorabeheren azterketa.**

Osasun Arloan artatutako istripuak ikertu dira. Ez da istripu larririk gertatu. Arreta berezia jarri da laborategietan gertatutako istripuetan.

## **12.- Beste jarduera batzuk.**

### **Mantalak garbitzeko zerbitzua (laneko arropa)**

2014. urtean mantendu egin da mantalak garbitzeko eta kutsadura kentzeko zerbitzua, eta ikusi da erabiltzaileak eta hartzeko zein uzteko gunearen erabilera

areagotu egin direla. Aldatu egin da mantalak kudeatzeko enpresa; beraz, tailatze berria eta erabiltzaileen kudeaketa egin behar izan da. Halaber, kudeaketa enpresa berriari prestakuntza eman zaio, mantalak hartzeko gune berriei eta kudeaketa egokia egiteko moduari buruz.

Ikerketako eta Irakaskuntzako Etika Batzordeetan parte hartzea, CEIABen zuzeneko partaidetzarekin. Horretan, batez ere, hainbat ikerketa proiekturen biosegurtasunaren alderdiak aztertzen eta ebaluatzen dira.

# 3.

# PRESTAKUNTZA

**LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO PRESTAKUNTZA ARLOAREN  
ESTATISTIKAK (2014. URTEA)**

IKASTAROA	IZEN EMATEAK	ESKAERAK	ZIURTAGIRIAK
Seguridad en alturas	60	61	60
Para la obtención del carnet de Carretillero	20	20	19
Reciclaje de Capacitación en el uso del desfibrilador externo semiautomático (DEA)	56	59	51
Gestión Básica de Prevención de Riesgos Laborales	4	4	4
Planes de autoprotección	16	18	16
Residuos tóxicos y peligrosos	99	99	96
Riesgo biológico	64	71	64
Riesgo eléctrico y mecánico	78	82	74
Seguridad en laboratorios	75	80	73
<b>GUZTIRA</b>	<b>472</b>	<b>494</b>	<b>457</b>

# 4.

# PREBENTZIO JARDUERAREN PLANGINTZA

2015eko plangintza: hilak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	Arduraduna
Osasunaren zaintza	Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko langileen osasun azterketak								MUFACE				PZ
Txertaketak	DT, VHB, Amorrua.								Gripea				PZ
Ergonomia: lanpostuen zerrenda	Urte guztian												PZ
Lanpostuen araberako arriskuen ebaluazioa					AE								PZ
Arrisku biologikoaren euste ziurtagiriak	C1 C2 C3												PZ
Eguneratzea: autobabeserako planak	Dagozkion planak eguneratzea												PZ/ALZ
Autobabeserako planak ezartzea: simulazioak	Urte guztian, ikastegiekin lankidetzan												Ikastegiak
Neurketa higienikoak	Urte guztian												PZ
Prestakuntza: laneko arriskuen prebentzioa	Urte guztian, Langileen Gerenteordetzak egindako deialdien arabera												PZ/Langileen Gerenteordetza
On line ikastaroa: laneko arriskuen prebentzioa							Ekaina						PZ/Langileen Gerenteordetza
Arrisku psikosozialen ebaluazioa	Neurri zuzentzaileak ezartzeko proposamena. Hasiera: presentzia bikoitza aurreikusgarritasuna lidergoa												SP/Gerenteordetzak/Errektoreordetzak
Prebentzioa kudeatzeko sistema	Eguneratzea												CSS
Segurtasun eta Osasun Batzordea, eta informazioa sailei.	Presidenteentzako deialdien eta unean uneko eskaeren arabera												Gerentzia
Prebentzio Zerbitzuaren 2014ko memoria eta OSALANi igortzea	Epea: martxoa												PZ
Barne Ministerioa -CICO- Aitzindarien zerbitzua	Eskatutako datuak ematea												PZ/Sailak
Etika Batzordea	Urte guztian												Ikerketa Errektoreordetza
Jarduera lizentziak.	Urte guztian												Campuseko gerenteordetzak
Zerbitzu gutuna	Webgunean argitaratzea						Unikunden eguneratzea						PZ
ATEX					ATEX								PZ
Kanpoko bitartekoekin lankidetzak	Suhiltzaileak												Ikastegiak



Prebentzio neurriak exekutatzea		Campuseko gerenteordetzak
Enpresa jarduerak koordinatzea	Informatizazioa	PZ
Maiztasun jakin bateko kontrolak; ikuskaritzak		PZ
Istripuak eta ezbeharrak ikertzea		PZ
Laborategi eta tailerretan segurtasuna seinaleztatzea		PZ
Laneko arropa: mantalak		PZ
Amatasuna babestea		Sailak /PZ/VP
Norbera babesteko ekipamenduak: aholkularitza		Sailak/ Zerbitzuak
Harremanak familiako medikuntzarekin, adituekin edo mediku ikuskatzaileekin, ezintasunak edo lanpostu aldaketak daudenean		PZ
Langileen Gerenteordetzarekin lankidetzak, ordutegi berezietan, egoera zehatzetan; lanpostu aldaketak, osasun arazoengatik; Ilko ordezkapenak kudeatzea; eta lizentziak eta baimenak.		PZ
Mediku arreta unibertsitateko kide guztien larrialdietarako		PZ
Ikastegiko botika kutzak mantentzea		Ikastegiak
Kanpoko desfibriladoreak mantentzea.		PZ
Osalarren edo Lan Sailaren ikuskaritzetan, ikuskatzaileari behar duen guztia ematen zaio		PZ
Parte hartzea bulegoko materiala erosteko prozesuetan		Campuseko gerenteordetzak
TSPRL Ergonomia eta Psikosoziologia berria gehitzea	Urtarrila	PZ
Ahotsaren erabilera egokiari buruzko bideoa		PZ/IISIG

## 2014/2015eko JARDUKETAK

### A. ARABAKO CAMPUSA

- Suteen aurka babesteko CPI itzaltze ekipoak ordezteka campuseko hainbat ikastegitan.
- Enpresa Ikasketen UEko, Gizarte Langintzako UEko eta Medikuntza Ikasguneko jarduera lizentziaren memoriak idaztea.
- Medikuntza Ikasguneko, Gizarte Langintzako UEko, Errektoreordetzako, Letren Fakultateko, Enpresa Ikasketen UEko eta Irakasleen UEko autobabeserako plana idaztea.
  - EGINDA: Medikuntza Ikasgunea, Gizarte Langintzako UE, Errektoreordetza, Letren Fakultatea, Enpresa Ikasketen UE eta Irakasleen UE.
  - Errektoreordetza 2015ean.
  - Halaber, Gizarte eta Giza Zientzien Micaela Portilla ikergune berriaren autobabeserako plana idatzi da.
- Simulazioak egitea Campuseko ikastegi/eraikin guztietan.
  - Eginda: Medikuntza Ikasgunea, Elurreta ikasgelategia, Pabiloia, Errektoreordetza, Farmazia Fakultatea, Jarduera Fisikoaren eta Kiroloaren Zientzien Fakultatea, Lascaray ikergunea.
- Integratzea FCAFDren eta Kontrol Zentroko Kiroldegiaren Pabiloiko erreformatu gabeko eremuko suteak atzemateko sistemaren eta alarmaren instalazio berria.
- Nahitaezko aldizkako ikuskapenak egitea (igogailuak, instalazio termikoak, instalazio elektrikoak).
- Ingeniaritzako UEko 6 atetako itxiera koordinatzeko gailuak instalatzeko bideragarritasuna aztertzea.
- JFKZFko tatami gelan izu barra instalatzea.
- Elurreta ikasgelategiko DPGan suteak amatatzeko sistema berria instalatzea.
- 1 ebakuazio sirena instalatzea Lascarayko P3n.
- Medikuntza ikasguneko larrialdietarako luminariak berrikustea eta/edo ordezteka.

- ATEX: egoera eta indarrean dagoen araudia aztertu ondoren, Campuseko zenbait ikastegitan eguneratu da atmosfera leherkorrak sortzeko arriskuaren aurreko babesa; zehazki, galdara geletan gas naturala atzemateko eta eteteko sistemak instalatu dira.
- Instalazio hori egin da honako hauetako galdara geletan: Farmazia F., Letren F., Enpresa Ikasketen UE, Irakasleen UE, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F., eta horren Kiroldgia. Horrela, galdara gelek gasa atzemateko eta eteteko sistemak dituztenez, sailkatu gabeko lekuak dira; beraz, ez da nahitaezkoa ATEX araudia aplikatzea.
- 2015ean jarriko da gasaren giltza Farmazia Fakultateko Mikrobiologia Sailean.
- Eskuz eteteko eta berriz armatzeko elektrobalbula bat duen gas detektagailua instalatzea Farmazia Fakultateko sukaldean (arduraduna: enpresa esleipenduna). 2015ean egiteko eskatuko zaie.
- Eskuz eteteko eta berriz armatzeko elektrobalbula bat duen gas detektagailua instalatzea Ingeniaritzako UEko sukaldean (arduraduna: enpresa esleipenduna). 2015ean egiteko eskatuko zaie.
- Ingeniaritza UEko ate nagusia hobetzea.

Halaber, jarduketa hauek gauzatu dira:

- Campuseko eraikinen zabaltzak, teilatuak eta estalkiak hobetzeko lanak inbentariatzea, ebaluatzea, ikuskatzea eta definitzea.
- Bibliotekaren okupazioari lotutako argi seinalea instalatzea Elurreta eraikinean.
- Baranda instalatzea Ingeniaritzako UEra sartzeko eskaileran.
- Automatismoak instalatzea Letren Fakultateko atean.
- Handitzea UEko gimnasioan suteak atzemateko sistema. Irakasle Eskola.
- Potentzia handiko sirena instalatzea JFKn.
- Atzemate lasterreko sistema instalatzea (hautsa xurgatuz atzemateko sistema), Elurreta eraikinaren teilatupean alarma faltsuak saihesteko.

## B. GIPUZKOAKO CAMPUSA

- Zabaltzak egokitzea, istripuak saihesteko babes sistemak ezarriz.
  - Psikologia Fakultatea: iaz FIHEZIn hasitako lanarekin jarraituko dugu; zehazki, segurtasun soka bat jarriko da estalkiaren perimetro guztian. Seinalezatzea, honako hau dioten kartelak jartzea: “Debekatuta dago polikarbonatoa zapaltzea”.
  - Erizaintza Eskola: bi segurtasun lerro aurreikusi dira; horietako bat estalkiko hegala erdialdean egingo da. Estaltzeko dago hegala eremua, eta, horretarako, segurtasun soka berri bat jarriko da, goihabearekiko paralelo. Seinaleak.
  - Irakasle Eskola: Zenbait segurtasun soka jartzea. Barandak eta honako hau dioten kartelak jartzea: “EZ zapaldu kristala”; “ez jausteko arnesa derrigor erabili behar da”.
  - Errektoreordetza-Julianategi: ainguratze eta “L” gakoak jartzea aurreikusi da, eskalari eusteko. Halaber, zenbait segurtasun soka eta bi segurtasun soka jarriko dira, hormigoizko teilatuaren gainean.
- Sirenak DEPea eta Kimika Fakultatean.
- Larrialdi argiak. Kimika Fakultateko eta Korta eta Santamaria eraikinetako sotoan eta solairu nagusian ordezkatzeko.
- Esku hartzea Korta eraikinean hondakinak eta lehengaiak garbitzeko gelan.
- Carlos Santamaria zentroko BTko koadro elektrikoak konpontzea.
- Itoginak konpontzea, hezetasunak konpontzea eta pintura lanak.
- Simulazioak; Julianategi. Hurrengo simulazioa: Ignacio Maria Barriola.

**C. BIZKAIKO CAMPUSA 2014**

- Hodiak aldatzea Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiko 5., 6., 7. eta 8. solairuetan, prebentzioa hobetzeko eta Legionella kontrolatzeko.
- Medikuntza eta Odontologia Fakultateko 4. transformazio zentroa ordezte. CT 4n AMAITUA 2015ean.
- Jarduera lizentziei buruzko memoriak idaztea, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultaterako, eta Medikuntza eta Odontologia Fakultateko solairua altxatzeko. Lehenengoa egin da, baina ez da Udalean aurkeztu, akatsak atzeman direlako.
- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko (Sarriko) sarrerako markesinako galiboa kentzea, larrialdietako ibilgailuak sartu ahal izateko. Ez da galiboa kendu, Bilboko Udalak obrarako lizentzia ezeztu duelako. Bilboko Udalarekin adostu da irtenbidea: larrialdietarako sarbide espezifikoa prestatuko da.
- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Areto Nagusia araudira egokitzea (egungo butaken ordeztu butaka erregaitzak jartzea, larrialdietarako luminariak jartzea, tentsio txikiko instalazioaren arauko ikuskaritza...).
- Konpontzea Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko tentsio txikiko instalazioetan arauko ikuskaritzan atzemandako arazoak.
- Bizkaiko Campuseko segurtasun sokak inbentariatzea eta berrikustea.
- Baranda jartzea Eskoletako (IITUE/MHLITUE) bigarren solairuko eremu partekatuko leihoan.
- Hobetzea IITUE/MHLITUEko lokal arriskutsuen (tentsio txikiko zentro orokorrak, gasolioaren depositua, transformazio zentroak) barneko seinaleak.
- Ebakuazio simulazioa egitea 1. eta 2. ikasgelategian, arratsaldeko txandan eta egiten den astea aldeztu aurretik jakinarazita (egun eta ordu zehatza ez dira jakinaraziko, ordea).
- Hesiak jartzea azalerako kanpoko aparkalekuaren perimetroan, maila ezberdinean jaustea saihesteko.
- IISIGeko leihoetako eguzki filtroen ordeztu, berriak jartzea.
- OCA betetzeko, hornidura elektrikoko kontagailuen gela egokitzea.
- Biblioteka Nagusiko eraikineko zorrotenak ordeztu eta argi zuloa konpontzea, lurzoru hezeak laprastadarik ez eragiteko. Lehenengoa egin da; bigarren jarduketa amaitu gabe dago.
- Alfonbrak jartzea Odontologia Klinikaren sarreran, lurzoru hezeak laprastadarik ez eragiteko; halaber, dilatazio lotuneko arrakala konpontzea. Lehenengoa egin da; bigarren jarduketa azterbidean dago.
- Bateratzea 1. eta 2. ikasgelategietako suteen aurkako zentralitak, eta kontrol zentroarekin lotzea.
- Bizkaiko Campuseko suteen aurkako zentralita guztietako protokoloak bateratzea.
- Errektoretzako DPZn suteen aurkako sistema bat instalatzea.
- 1. ikasgelategiko igogailua konektatzea suteak detektatzeko sistemarekin, suterik gertatzen bada, automatikoki geldi dadin.
- Material fonoxurgatzailea jartzea Irakasleen Unibertsitate Eskolako hainbat lokaletan, erreberberazioak saihesteko.
- Sarrikoko bibliotekako igogailua araudira egokitzea.

## BIZKAIKO CAMPUSA 2015

- Hodiak aldatzea Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiko 1., 2., 3. eta 4. solairuetan, prebentzioa hobetzeko eta Legionella kontrolatzeko.
- Medikuntza eta Odontologia Fakultateko 5. transformazio zentroa ordeztzea. Proiektua amaitzea, obra lizitatzea eta obra gauzatzea.
- Jarduera lizentziari buruzko memoriak idaztea, kiroldegirako.
- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean larrialdietarako sarbide eskusiboa gaitzea.
- Honako hauen zabaltzak eta estalkiak egokitzea: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa eta Zientzia eta Teknologia Fakultatea.
- Leioa Erandio eremuko berokuntza sistema dimentsionatzeari buruzko azterlana.
- Simulazioak egitea Bizkaiko ikastegietan.
- Leioa Erandio eremuko urak biltzeko hodia konpontzea.
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean larrialdietako irteera irekitzea, ebakuazioa hobetzeko.
- Leioako Biblioteka Nagusiaren eraikinaren fatxada egonkortzeko elementuak hobetzea.
- Aldez aurreko atondoak gaitzea, Eraikuntzaren Kode Teknikoa egokitzeko, Biblioteka Nagusia, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Arte Ederren Fakultatea, II. ikasgelategia, kiroldegia...
- Nautikako eta Itsas Makinen Goi Mailako Eskola Teknikoko motorren araudiaren arabera jarduten dela egiaztatzeko azterlana.
- Leihoak ordeztzea arrisku eremuetan, Prebentzio Zerbitzuak emandako txostenei jarraikiz, Medikuntza eta Odontologia Fakultaterako.
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean hermetikotasun proba egitea.
- Nahitaezko aldizkako ikuskapenak egitea (igogailuak, instalazio termikoak eta instalazio elektrikoak).
- Teknologia Parkeko eraikinen suteen aurkako babes sistemak integratzea: Biofisika, CBA, Plataforma.
- Suteen aurkako babes ekipoak ordeztzea, bizitza erabilgarria amaitu delako.
- 2015eko iraungitze data duten autobabeserako planak egitea, Prebentzio Zerbitzuarekin batera (Nautika eta Itsas Makinen GET, IITUE/MHLITUE, Bilboko Ingeniaritza GTE). 2014an egiteko gelditu zirenak amaitzea.